

Lurraren abestia

Albiste harrigarria heldu zaigu duela gutxi. Gezurra badirudi ere, Lurrak abestu egiten du. Horixe diote, behintzat, NASAko zientzialariek.

Abesti edo kantu bitxi hori Lur planeta inguratzen duten erradiazioek sortzen omen dute, eta espazioan dabilzan satelite bik grabatu dute. Izan ere, gizakiok ezin dugu kantu hori aditu; entzun ahal izateko, antenak eduki beharko genituzke belarriak izan ordez.

Polita izango litzateke Lurrak eskaintzen digun etengabeko kontzertu hori entzutea eta abestiak nolako doinua duen jakitea. Martxosoa izango al da? Ala lasaia? Batek daki! Baina, egia esan, gure planetak bizi duen egoera ikusita, ez dut uste alaiegia izango denik. Zer uste duzu zuk?



- Zein da testuan aipatzen den albiste harrigarria?

- a) Lurrak abestu egiten duela.
- b) Lurra gelditu egin dela.
- c) Lurrak hitz egiten duela.

- Nor eman du albistearen berri?

- a) NASAko zientzialariek.
- b) Lehendakariak.
- c) Eskolako zuzendariak.

- Nork entzun edo grabatu du kanta?

a) Satelite bik grabatu dute.

b) Astronauta batek.

c) Satelite batek.

- Gizakiok entzuteko gai al gara?

a) Ez gara kanta hori entzuteko gai.

b) Bai gara entzuteko gai.

c) Egunero entzuten dugu.

- Aukeratu hitz zuzena.

- Landarea / Landareak ura behar du.

- Zure gona / gonak marraduna da.

- Osaba Josu / Josuk guitarra jotzen daki.

- Aita / Aitak esan du berehala joateko.

- Lurra / Lurrak abesten ari da.

- Josu / Josuk oso jatorra da.

- Ibaik / Ibai jatetxe batean lan egiten du.

- Horrek / Hori nire laguna da.

- Nik / Ni igerilekura egunero joaten naiz.

- Guk / Gu hamaiketakoango dugu.

- Martin / Martinek hitz egiten ari da.

- Maria / Mariak zinemara joatea gustoko du.

- Entzun "Lo egin ezinik" elkarrizketa eta adierazi erantzun zuzena.



- Zergatik ari da Unax negarrez?

- a) Gose delako
- b) Ezin duelako lo egin.
- c) Inork ez daki zergatik.

- Nork esnatuko du horrela jarraitzen badu?

- a) Auzoko guztiak
- b) Herritar guztiak
- c) Mundu guztia

- Nori bururatu zaio sehaska – kanta abestea?

- a) Amari
- b) Aitari
- c) Arrebari

- Zer egin beharko du arrebak lokartzeko?

- a) Esne beroa hartu
- b) Izarrak zenbatu
- c) Arkumetxoak zenbatu